

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Torres kontseilaria adimen ezintasuna dutenen aldeko Nafarroako Elkarten Federazioarekin elkartu da

Federazioko GKE-ek banaka jasotzen duten laguntzez gain, Nafarroako Gobernuak 2010ean 28.200 euro eta 2011n 39.280 euro eman dizkio federazioari

Viernes, 02 de septiembre de 2011

Elena Torres Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria kontseilariak adimen ezintasuna dutenen eta familiakoen aldeko Nafarroako Elkarte eta Erakundeen Federazioko ordezkariak (FEAPS Nafarroa) egin die harrera bere bulegoan. Elkarte hori gobernuz kanpoko eta irabazi asmorik gabekoa da, eta adimen ezintasuna duten eta horien familiako 3.000 pertsonak baino gehiagok osatzen dute.



Ezkerretik eskuinera: Marta Lachen, Antonia Alonso, Torres kontseilaria, Ana Abaitua, Gerardo Posada eta Ramón Loitegui

Bilera taldearen beharrezan, berehalako jardueren eta federazioaren barruko GKE-en etorkizuneko proiektuen inguruan kontseilariarekin hitz egiteko da.

FEAPS Nafarroak honako hauek eskaintzen ditu: komunikazio eta kontzientziazio zerbitzuak ikastaroen, jardunaldien, hitzaldien, eta abarren bidez; adimen ezintasuna duten helduen autokudeaketarako zerbitzuak (komunikatzeko ohitura hartzeko edo autonomia handiagoa izateko aldizka elkartzen diren taldeen bidez); bolondresentzako, ezintasunak dituztenentzako, familientzako eta profesionalentzako trebakuntza eta ikaskuntza; aisialdia eta denbora librearen (oporretarako programak proposatzen ditu); familiei arreta emateko zerbitzua eta boluntariora. Nafarroako Gobernuak jarduera horiek sustatzen ditu elkartegintza indartzeko diru-laguntza emanez: 2010ean 28.200 euro eta 2011n 39.280 euro. Horiez gain, federazioko GKE-ek banaka laguntzak jasotzen dituzte.

Federazioa 14 elkarte eta erakundek osatzen dute: Anfas, Bidean Elkarrea, Isterria HBZ, Atena Psicoballet Fundazioa, Ciganda Ferrer Fundazioa, Tutelar Navarra Fundazioa, Javier Egoitza, Andrés Muñoz Garde APYMA HBZ, El Molino APYMA HBZ, Isterria APYMA HBZ, Torre Monreal APYMA HBZ, APYMA Monjardín Eguneko Zentroa, APYMA La Atalaya Egoitza eta Eguneko Zentroa, APYMA Oncineda Egoitza.

Kontseilariari iragarritakoaren arabera, irailaren 22an (ostirala), FEAPS, ANFAS, NUP eta FEAPS Nafarroak antolatutako "Ciudadanos de pleno derecho" (Eskubide osoko herritarrak) izeneko jardunaldia egingo dute ezintasunak dituzten pertsonen eskubideak argi uzteko, gai horren inguruan Nazio Batuen Erakundeak egin zuen bilera oinarri. Jardunaldian Estatuko Fiskaltza Nagusiko epailtzako kideek, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak edo Ezintasunak dituzten Pertsonen Ordezkarien Espainiako Batzordeak esku hartuko dute.

Hauek izan dira gaurko bileran: Antonia Alonso FEAPSeko presidentea eta Ana Abaitua zuzendaritza taldeko kidea, Marta Lachen Komunikazio arduraduna, Ramón Loitegui Tutelar Fundazioko presidentea eta ANFASeko kudeatzailea.